

Udako Kirol eskaintza Buruntzaldean

Buruntzaldeko Kirol zerbitzuek 2009ko udako eskaintza zabala aurkeztu dute. Manu Zubillaga medikuarekin hitz egin dugu eta kirolaren onurak zeintzuk diren, sasoko nola egon eta udan zein kirol den gomendagarri azaldu digu, besteak beste.

/4-5



“Herritarrek krisia ahaztu eta jaiak ongi igarotzea nahi dugu”

■ 2009ko San Pedro Jaietako egitaraua aurkeztu zuen atzo Lasarte-Oriako Udalak

Ana Urchueguia alkateak, Jesus M. Zaballos Festak eta gazteria batzordeetako buruak Rosa Illaramendi festetako teknikariak eta Xabier Goitia kulturako teknikariak aurkeztu zuten atzo 2009ko San Pedro Jaietako egitaraua.

Alkateak adierazi zuenez, “San Pedro Jaiak kalitate onekoak izango dira, nahiz eta aurrekontu urria izan. Iazkoarekin alderatuta %32a murriztu dugu.”

“Hau kudeaketa onaren seinale da eta, honekin, herritarrek jaietaz gozatzea nahi dugu, krisia ahaztuz,” gaineratu zuen. Ana Urchueguiak.

Herritarren parte hartzea

Hala ere, herriko jaiak ez dira ezer parte hartzerik gabe.

Horregatik, herriko elkarrekin lana nabarmendu nahi izan zuen Zaballosek, “aurten, talde gehiagok parte hartuko dute. Esate baterako, Bazpi txirrindulari eskolak ziklokrossa txapelketa antolatuta du edo Beltzak Rugby taldeak haurrentzako partidak. Gainera, parte hartze handia da ere haur eta helduen danborradan.”

Ostalarien eguna

Azpiarragarria da, ekainak 27 larunbata, ostalariek antolatu duten eguna.

“Jaiak igandean hasten dira, baina ostalariekin akordioa egin genuen eta larunbatean haur parkea, batukada eta kontzertuak egongo dira Andatza plazan,” azaldu zuen alkateak eta atxiki zuen “ahalegin han-



dia egin dugu bai ostalariek, baita udalak ere.”

Bigantxak, haurrentzako parkeak, kalea girotzeko txar-rangak, Isla plazako dantzal-

diak, Andatza plazako diskojaia edo Gatiburen kontzertua. Honen guztiaren berri jakiteko hurrengo astean etxeetan banatuko den egitaraua izango da. •

Okendo plaza gabe laster

Lasarte-Oriako Udalak aurreratu zuen bezala, Okendo plaza aurki itxiko da eta San Pedroetarako ez da erabilgarri egongo.

Honen adibide dugu, atzo goizean, Okendo plaza eta pilotalekua itxiko dituen hesi metalikoaren lehenengo proba.

Okendotik igarotzen zen jendea harritua geratzen zen, langileak egindako zulo eta ezarritako metalezko zutabe eta txafalak ikustean.

Arratsaldean, berriz, hori guztia bildu eta herritarrek plazaz eta eguraldiaz gozatzeko aukera aparta izan zuten. •



HAUTESKUNDEAK/3

Europako Legebiltzarreko hauteskunde emaitzak herrian

KIROLA/6

Landaberriko tenis taldeak Gipuzkoako txapeldunak

KIROLA/6

Landaberriko atletismo taldea Gipuzkoako txapeldun orde



SUGATE

Sukaldeak

MERKATUKO PREZIO HOBERENAK !!

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



DESKONTU BEREZIAK
%20 desk. modelo desberdinetan

Neure kabuz



440 urte Lasarten

Jende askok ez du jakingo San Pedro Parrokiak 440 urte bete-
tzek duenik, baina gauzak hala
dira. 1569ko Apirilean eraiki
zuten parrokia hau, hemen
Lasarten. Aurretik ba zegoen
historiarik bai baina, honako
gertakari hau ez zen edozelakoa
izan, herri honen norabidean.
Lasarte inguru hau guztia,
Donostiako Antiguano dagoen
San Sebastian parrokiaren agin-
duetara zegoen ordura arte
jarria eta, Nafarroako erregearen
boterez, Leireko monasterioaren
jabetzapean. Geroxeago Leire-
koak, barruti hau dena, beste
monasterio bati eman zioten,
Irantzukoari hain zuzen ere.
Askenik Iruinako gotzainaren
eskutara iritsi zen arte.

Hemen ba ziren ordea,
hainbat jende, bertan parrokia
eraiki nahi izan zutenik. Ez zen
gauza erresa izan. Donostiako
horiek, fraide dominikoak buru,
San Telmoko monasterioak,
San Sebastian parrokia ez zutela
zatituko jardun zuten, arren eta
arren. Ez zuten bete-betean lortu
nahi zutena, baina hemengo
gure parroki hau eraikitzea
onartu zutenen Iruinean, inon-
go diru eta ondasunik gabe
izango zeneko baldintzapean
izan zen eta ederki antz eman
da horrelako jokabidean men-
deetan zehar, naiz beti egon
diren laguntzaile partikular
asko.

Bestalde kuriozosa da irakur-
tzea garai harietan zer nolako
kezkak zituzten eliz agintariak.
Parrokia hau eraiki zuen gotzai-
na Pedro de la Fuente izan zen
eta bi alditan egon zen Lasarten.
Honela dio bere agindu libu-
ruak: <<gauzak nahiko ongi
aurkitu ditut parroki berrian
baina, prozesioak direla eta egi-
ten diren ibilaldiak luzeegiak eta
mozkortzeko okasio... beraz,
agintzen dut, horiek moztu eta
tabernak itxi ditzatela, prozesio-
ak irauten duten bitartean>>.
Gaur Lasarten, prozesioak zer
diren ere jakitea zaila da, baina
tabernak, klase guztiak, hori bai.

Xabier Andonegi

Zorion-agurrak



Lorena

Zorionak lolo! Ea noiz
afaltzen dugun fundamen-
tuz... katxipiruleta! Ondo
pasa eta muxu asko wapa!



Martina

Zorionak printzesa!
Muxu handi-handi bat
ama, aita eta Joacoren
partetik!



Nahia

Zorionak zure seigarren
urtebetetzean! Amatxo,
aitatxo eta Malenen
partez



Jagoba

11 muxu haundi, lgone,
aita, ama eta familia
osoaren partetik.



Begoña eta Garazi

Zorionak amatxo, zure alaba eta senarraren par-
tetik eta zorionak Garazi, gurasoak eta aiton-amo-
nen partetik. Ondo pasa bikote!



Adriana

Zorionak polita! Sei
muxu handi guraso,
aiton-amonen eta ize-
ban partetik.



Alaine

Zorionak zure 6. urte-
betetzean gurasoen eta
Irairen partetik.
Muxuak



Aitor

Zorionak hi! Ta ez jarri
hain serio, hamarkada
berrian sartu haiz... baina
ez duk hainbesterako!

Guardiak

- Ostirala, 12**
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529
- Larunbata, 13**
Rodríguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
- Igandea, 14**
Rodríguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774
- Astelehena, 15**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
- Asteartea, 16**
Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567
- Asteazkena, 17**
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652
- Osteguna, 18**
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Telefonoak

- Osasuna / Larrialdiak**
- Osasun Zentroa ... 943 007960
- DYA ... 943 464622
- Gurutze Gorria ... 943 363953
- Udaltzainak ... 943 362442
- Ertzaintza ... 943 288888
- SOS Deiak ... 112
- Udala**
- Erregistroa ... 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia ... 943376182
- Kulturetxea ... 943376181
- Bakezko epaitegia ... 943371629
- Zerbitzu Sozialak ... 943376179
- Zentro Zibikoa ... 943363958
- KIUB ... 943361605
- Udal euskaltegia ... 943361621
- Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Lasarte-Oriako zentroan pisu bat alokatzen dut. Harremanetarako zenbakia, 686 674 552.
- Logela bat alokatzen da pisu partekatuan Lasarte-Oriako erdialdean. Pertsona arduratsua eta ez erretzailea bilatzen da . 250 euro + gastuak. Tel.: 686 932714.

• Pisu bat alokatzen dut Iñigo de Loiola kalean. Tel.: 627995760

• Pisu bat salgai Lasarte-Orian, Goikalen. Dena kalera ematen du eta salneurria 33.000.000 peze-
tetakoa da. Tel.: 679 680 465.

Salerosketak

• Lasarte-Oriako zentroan gara-
jea alokatzen dut. Harremanetara-
ko zenbakia, 686 674 552.

• Opel astra salgai. 1.000 euro.
Lasarte-Orian. Tel: 600 612 085.

Lan-eskariak

- Klase partikularrik ematen ditut: lenguaia, euskara, matemati-
ka, euskara. Tel.: 693 60 12 22
- Pertsona helduak eta haurrak zain-
tzeko eta etxeko lanak egiteko
prest dagoen emakumea naiz.
Harremanetarako zenbakia,
616175328.
- Adineko jendea zaindu eta gar-
bitasuna egiteko lana egingo
nuke. Etxe barnean biziz edo
kanpotik. 689159643
- Adin nagusiko jendea zaintzen
edo garbitasuna egiten lan egingo
nuke. Etxe barnean biziz edo
orduka. 943368574-630438571
Marta.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858 • Geltoki 4 • txintxarri@ttakun.com
www.txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
Oharrak jartzeko asteazken eguerdia baino lehen bidali (iragarki laburretan argitara-
tzeko astearte eguerdia baino lehen).

Jaiotzak

- Urko Goñi Izagirre,
ekainaren 4ean
- Ibai Rodrigo Peciña,
ekainaren 4ean
- Laiene Ugarte Miner,
ekainaren 2an



Xuka Otaegi Lizarraga,
ekainaren 2an
Xenia Arroyo Bizarro,
maiatzaren 31ean

Gazte Informaziorako Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181



Zazpi lanpostu Legazpiko Udalean

Legazpiko Udalak INEMekin sina-
tuta duen hitzarmenaren arabera,
ondorengo lan-eskaintza luzatzen
du: 3 peoi; 2 turismo gidari; kirol
monitore bat; oinarritzko informa-
tikako irakasle bat.

Eskaerak aurkezteko epea ekaina-
ren 12an, arratsaldeko 13:00etan
amaituko da.
Lan gabe eta Enplegu-bulegoan
izena emanda gotea beharrezkoa
izango da. (Legazpin bizi direnek
lehentasuna izango dute).

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SSS13/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.


Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Iniziatibak ezik, beste alderdi guztiek behera egin dute

PSOEk 2.683 boto lortu ditu herrian, eta Iniziatiba Internazionalistak 941

TXINTXARRI

Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak ere alde handiarekin irabazi ditu PSOE alderdiak Lasarte-Orian. Guztira, 2.683 boto lortu ditu, hala ere, lau urteko datuekin konparatuta 112 boto gutxiago. Bigarren indarra Iniziatiba Internazionalista-Herrien Elkartasuna izan da 941 botoekin. Duela lau urte baliogabetan sartu zituzten ezker abertzalearen botoak, eta 829 zenbatu zituzten orduan. Beraz, ezker abertzaleak gora egin du herrian. Hirugarren indarra EAJ izan da, 895 botoekin. Jeltzaleek ere behera egin dute, 171 boto gutxiago lortuz. Laugarren indarra PP izan da, 852 botoekin. Duela lau urte baino 152 boto gutxiago lortu ditu PPK herrian. Jarraian dator Aralar-EA koalizioa 294 botoekin. Duela lau urte bakoitza bere aldetik aurkeztu zen, eta biek batera 449 boto jaso zituzten (EAK 375 eta Aralarrek 41). Beraz, horiek ere behera egin dute. Ezker Batuari ere berdin gertatu zaio. Igandean 100 boto eskuratu zituen



Lasarten, eta 2004an, 257. Ondoren dator UPyD alderdia, 61 botoekin. Duela lau urte ez ziren aurkeztu. Beste alderdi batzueri dagokienez, aipatu Europako Berdeek (LV-GVE) eskuratuak 36 botoak, eta mundu justuagoren aldeko alderdiak (PUM+) lortutako 16ak. Animalien tratu

txarren aurkako alderdiak ere (PACMA), 16 boto jaso ditu Lasarten, eta alderdi antikapitalistak (IZAN-RG) 15.

Abstentzioa handia

Aipagarria, bestalde, izandako abstentzioa handia. Izan ere, 14. 298 laguneko errolotatik 8.265k ez zuten botorik

eman joan den igandean. Ehuneko %57,81ekoa izan da abstentzioa. 2004an, berriz, %56,35ekoa. Beraz, argi geratu da Europak oraindik ez duela lasarteiarren interesa behar adina pitzen. Bukatzeko, boto zurien kopuruak ere gora egin du, 31tik, 50era alegia. •

GAZTEEN AISIA

Bihar Ostarterekin saskibaloian jolastera

Ostarte gazte elkarteak saskibaloio partiduak antolatu ditu bihar, larunbata gauerako.

Gaueko 22:00etan hasi eta 00:00ak arte luzatuko diren partidak, Sasota ikastetxearen patioan jokatuko dira, eta hitzordua gauerako egin dutenez, ez da argirik faltako saskibaloio kantxan.

Antolatzaileek 30-40 gazte espero dituzte, eta, era horretan, parte-hartzaileen artean taldeak osatu eta partidak jokatuko dira.

Aurreko batean futbol partidak antolatu zituzten, oraingon honetan, berriz, saskibaloia txanda izango da.

Ohi moduan, gazteen partaidetza bultzatu nahi du Ostartek. Horregatik, herriko gazteei dei egin diete larunbata gauetan Sasoteko ikastetxera hurbil daitezten. •

AISA

Etorkinentzako euskara ikastaroak

Etorkinentzako harrera-ikastaroak antolatu dira Udal Euskaltegian, Eusko Jaurlaritz eta HABEren laguntzarekin.

Ikastaro hauek, Autonomia Erkidegoan bizi diren eta euskararekin harremanik izan ez duten etorkinei zuzenduta daude. Etorkinek hemengo gizartea, ohiturak, etab. ezagutu eta euskara ikasteko lehen-dabiziko urratsak emateko aukera izango dute.

Ikastaroak 60 orduko iraupena izango du. Uztailaren 1etik 21era egingo da, eta astelehenetik ostiralera 4 orduko saioak izango dira.

Izena emateko epea ekainaren 19an bukatuko da, eta matrikula doakoa da.

Informazioa eskuratu eta izena emateko, Lasarte-Oriako Udal Euskaltegi gerturatu, (Bekokale bidea 1), 943 36 16 21 telefono zenbakira deitu, edo euskaltegia@lasarte-oria.org helbide elektronikora mezua bidali. •

INGURUMENA

Bigarren eskuko merkatuan lekua

Ekainaren 20an antolatuko den bigarren eskuko merkatuan, postuak jartzeko lekua geratzen dela jakinarazi dute Ingurumen, Kontsumo, Merkataritza eta Osasun sailetik. Parte hartu nahi duenak 943 37 60 55 telefonora deitu behar du izena emateko. •



Marian Ibargoienen erakusketa Jalgi kafe-antzokian

Hilabete hasieratik Jalgi kafe antzokian ikusgai dauden koadroak Marian Ibargoieneren herriarrarenak dira.

Lasarte-Oria Bizilagunen Elkarteak antolatzen duen marrazki eta pintura ikastaroko ikaslea dugu eta ez da lehen aldia Jalgin bere lanak ikusteko aukera dagoena.

“Duela bi urte egin nuen lehenengo Jalgin. Marrazki eta pinturara noa eta bertan, Maitek animatu ninduen era-

kusketa egitera,” adierazi digu Marianek.

“Kopiak dira nik egindako koadro guztiak. Faltsifikatzailerona izan naitekeela diote,” gaineratu du.

Koadroak ikasturtean zehar egindakoak direla onartu digu, “ikasgelan egiten dut lan eta hiru edo lau egunetan koadro bat margotzen dut.”

Erakusketa

Afrikako kutsua dute ikusgai

dauden lanek, “horrelako gaiak gustuko ditut eta Naturako postalak hartzen ditut eredu gisa. Baina eskura dudana edozer izan daiteke eredu, esate baterako, Donostiako paisaia egunkari batetik atera nuen.”

“Baserriaren koadroa, bestalde, eskaera bat izan zen, lagunek asko eskatzen didate koadroak egitea. Eta hori koadro baten argazki zahar batetik atera behar izan nuen,” adierazi digu.

“Hala ere, tonok eta koloreak nik gustuko ditudanak edo egokienak iruditzen zaizkidanak erabiltzen ditut” azpimarratu du.

Baina Marianen lanez gain, erakusketan lagun baten bi koadro daude, “oso ongi marrazten du eta duela gutxi hasi da olio margoekin lanean. Erakusketan dauden bi loreak bereak dira. Pixkanaka eskua hartzen ari da eta primerako lanak dira.” •



EKAINA AMATEAN MARTXAN JARRIKO DIRA BURUNTZALDEAN ANTOLATU DIREN KIROL IKASTAROEAK

Buruntzaldeko ikastaroekin udan ere sasoiako

Osasuna urte osoan zaintzea aholkatzen badigute ere, datozen kiroldegietan antolatutako ikastaroetan izena ematen besterik ez izango dugula askok zeregiri horretarako aitatzeko gutxiago hitz egiten dugu. Denboraz, eta egraraldia lagun, baita aukera gehiago ere, dakarzan onurak ere gehiago. Buruntzaldean urte luzean lan egin izan denak beste, kirol pixka bat egiteko. Gertu gainera, Buruntzaldeko



Manu Zubillaga kirol medikua. Zuraizetako bere kontsultan.

- Errehabilitazioa
- Fisioterapia
- Kirol Medikuntza
- Podologia
- Osteopatia

horrietan, jendekak geroz eta gehiago daki eta, gehiegikeria gutxiago egiten dira.

Urtean zehar eramandako eritmitik udako kirol ekin-tzetara, egokitzapen transizio moduko bat egitea komena-garria da?

M.Z.: Neure gomendioa noski kalera ateratzea da. Kanpoko kirol jardueretan parte hartzea. Urtean zehar kirola egiten duenari, gainera ekintza desberdinak egitea ere komena-garria dela esango nioke. Beti kontuan hartu behar da, udan zer egin nahi dugun. Helburua, egoera fisiko kon-kreua bat lortzea ote den, edo urte horretan zein den gure une horretan zein dagoen egoera fisikoa eta zehar den-bora dugun. Garbi dago aurrerik, zerbitu egin beharra dagoela.

Zalantzan dagoen horri begi-tuta, Nola animatu uda tonetan Kirola egiteko?

M.Z.: Animalia ez da balere erraza baina zera esango nioke; ezetz egin! Kirola, pro-batu egin behar da, zer onura dakartzan ikusteko. Onura psikologiko zein fisiko segituan nabaritzen da. Kirola egiteko, probatzeko esango nioke, eta gero hitz egingo dugula. Hori bai, beti neurrrian eta jakinez nor gaten eta zer egingo dugun.

Uda amaitzen, zuen kontsul-tan izaten al duzue kirolki-egin ez duela eta, damutu den ino?

M.Z.: Noski. Adibidez, urtean zehar talde kirolean aritzen diren federatu askok, uda par-tien ez du ezer egiten. Grotz-txoek bereziki. Hainzatan uda justu, kon-trakoa da, lasaitasun eta kirol-ekin ez egiteko garaia. Askotan bonuzat ditoztenekin, nabari da ez dutela ezer egin. Baina urtean zehar, astean hiru edo lauetan entrenatzen aritu ostean, ulergarria da. Federatu ez den kirolariek adidiz, kirol jardueraren bat egin behar luke, oso parat ona da eta. *

Kirola egitea osasungarria izan ohi da beti. Uda parteko jarduerak zer berezitasun dituzte?

Manu Zubillaga: Udak natu-rarekin lotura duten kirol jar-duerak egiteko aukera ematen digu. Neguan normalean barruan egiten dira ekintzak. Kanpokoan egite horrek aukera gehiago ematen dizkigu. Nola eta zenbateraino egiten dugun, horren arabera osa-suntsuagoa izan daiteke, edo ez.

Kirola egiteak dakartzan onu-rak ez dira eta gutxi?

M.Z.: Kirolak baditu onura fisiko zein psikologikoak. Behar bada, udan onura fisi-koak antzekoa izan arren, kan-pokoan kirol jardueraren bat egiten aritzeak garbi dago beste abantasiu bat ematen digula. Alderdi psikologikoan egongo litzateke aldea.

Uda garaiko kirolaririk bada-goa, beharazko zenue?

M.Z.: Beharazko geroz eta gutxiago. Garai batean ez bazela, orain argi dago urtean zehar eskaintza han-dagoela eta udan kirola egiten duenak, neguan ere zer-bait egiten du. Baina oraindik badira batzuk, neguan ezer egin ez eta bat batean hasten dena korrika hondartzan, igerian, surfean, bizikletan... Arazak askotan horik datoz. Pisu kontuekin edo norbere itxurari lotuta, askakira asko egiten dira uda partean.

Astakerien muga non jar liteke?

M.Z.: Muga hori jar liteke, baina orokorrean ezin liteke esan zer den astakeria eta zer ez. Adibidez, Aizkorriko maratona, 42 kilometro gora eta behera. Astakeria bat da hori? Niretzat bai. Zurr. Han egin zirenezat? Beharbada ez. Ure gutzitan eta askotan halako proba baterako presu-tzen dharatze eta. Gehiegi-kerak bezala, alpatu duzue oso pertsonala da. Norbera-ren muga hori non dagoen jakitea interesgarria izaten da.

Allurralde Andoain

JARDUEA	TXANDA	EGUNAK	ORDUAK
Iperiketa: 2005-06an jaiotakoak; hasiapena eta luobidea hasierakoak	Ekainak 29-uztailak 10	Egunero	10:30, 17:00
Iperiketa: 2003-04an jaiotakoak; hasiapena eta luobidea hasierakoak	Uztailak 13-24	Egunero	11:30, 18:00
Iperiketa: 2002tik aurrera jaiotakoak	Ekainak 29-uztailak 24	Egunero	12:30, 16:00
Iperiketa: Haur txikiak	Ekainak 29-uztailak 24	Ast. eta astz. Astr. eta ostig.	16:00
Arto birrindularitza	Ekainak 29-uztailak 24	Ast. eta ostig.	9:45, 15:15, 19:15, 20:15
Fit-pumpa	Ekainak 29-uztailak 24	Ast. eta astz.	15:15

JARDUEA	TXANDA	EGUNAK	ORDUAK
Tennis	Uztailak 13-24	Egunero	11:00
Arto birrindularitza	Uztailak 10	Egunero	12:00
Aerobika	Ekainak 29-uztailak 24	Ast. eta ostig.	10:45
Eskaiala	Ekainak 29-uztailak 10	Egunero	11:00, 12:00

GOIZEAN KIROLEAN

JARDUEA	TXANDA	EGUNAK	ORDUAK
Iperiketa	Ekainak 29-uztailak 10	Egunero	Hastapena: 8:30, 19:00; Hasierako: 9:30, 20:00
Aquayma	Ast. eta astz. Astr. eta ostig.	Ast. eta ostig.	9:15, 19:30
Aerobika	Ast. eta ostig.	Ast. eta ostig.	10:30, 19:30
Funkya	Ast. eta astz.	Ast. eta astz.	18:30, 20:30
Arto birrindularitza	Ekainak 29-uztailak 24	Ast. eta ostig.	9:45, 15:15, 19:15, 20:15
Fit-pumpa	Ekainak 29-uztailak 24	Ast. eta astz.	15:15
Fit-balantze: fuchi, Pilates	Ast. eta ostig.	Ast. eta ostig.	9:45, 20:00
Yoga	Ast. eta ostig.	Ast. eta ostig.	9:30
Eskaiala	Ekainak 29-uztailak 10	Ast. eta ostig.	18:00, 19:00
		Ast. eta ostig.	20:15
		Ast. eta ostig.	19:00, 20:15

Urnieta

JARDUEA	TXANDA	EGUNAK	ORDUAK
Tennis	Ekainak 29-uztailak 10	Egunero	10:00, 11:00, 16:00, 17:00, 18:00
Iperiketa	Uztailak 13-24	Egunero	12:00-12:25, 12:30-13:00
Surria	Uztailak 13-24 eta abuztuak 7-12	Ast. eta ostig.	11:00-11:50
Patinatzaileak	Uztailak 13-24 eta abuztuak 17-21	Egunero	13:00-13:50
Patinatzaileak	Uztailak 13-24 eta abuztuak 17-21	Egunero	17:30-19:30

Lasarte

JARDUEA	TXANDA	EGUNAK	ORDUAK
Ureako festa	5-12 urte	Ekainak 25	10:00-12:15
Jostakeroa, TTAK/Ulekin elkartean	HHS-LHE arbolea	Uztailak 3-24	Golez
Haurtozentzako igeriketa	12-24 hilabete	Abuztuak 4-27	10:00-10:30
Arto birrindularitza	6-12 hilabete	Uztailak 4-31	11:30, 17:15
Iperian hasia	04-05an jaiotakoak	Uztailak 6-31	10:30, 18:15
	06-08an jaiotakoak	Uztailak 31-irailak 26	19:15

JARDUEA	TXANDA	EGUNAK	ORDUAK
Indoor birrindularitza	> 12 urte	Uztailak 1-30	Ast. eta astz. 9:00, 18:30, 19:30
Pilates	> 12 urte	Uztailak 1-30	Ast. eta ostig. 9:00, 19:30, 20:30
Tonifikazioa	> 12 urte	Uztailak 2-30	Ast. eta ostig. 9:30, 20:30
Aerobika	> 12 urte	Uztailak 1-29	Ast. eta ostig. 10:30, 19:30
Iperian hasia	Helduak	Uztailak 6-31	Astelehena, asteazkena
Aquarrobika	> 12 urte	Uztailak 1-29	Ast. eta ostig. 7:10, 20:00
Aquayma	> 12 urte	Uztailak 2-30	Ast. eta ostig. 20:30
Prinaga hasierakoak	> 12 urte	Uztailak 1-29	Ast. eta ostig. 9:00
		Uztailak 6-11	Egunero 16:30

Oiardo Usurbil

943 372 498 kirolpat@usurbil.net

JARDUEA	TXANDA	EGUNAK	ORDUAK
Iperiketa			
Herri kirolak			
Plota	Uztailak 6-24	Ast. ostig.	10:00-13:00
Ekualak			
Jolasa, topelak			

JARDUEA	TXANDA	EGUNAK	ORDUAK
Iperiketa hasiapena		Ast. ostig.	9:00-9:50
Iperiketa hobekuntza		Ast. eta ostig.	20:00-20:50
Arrokik		Ast. eta ostig.	9:00-9:50
Mantentze gimnastika	Uztailak 6-24	Ast. eta ostig.	9:00-9:50
Pilates		Ast. eta ostig.	19:00-19:50
Spinning		Ast. eta ostig.	15:00-15:50
Power dunbel		Ast. eta ostig.	19:30-20:20
		Ast. eta ostig.	20:00-20:50



Kiroletako agenda

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 06

MOSSO MEMORIALA

FINAL LAURDENAK

Michelin edo moduloan

10:00etan, Katanga-Izkiña

11:00etan, Ainhoa-Jordi

12:00etan, IOB H.K.-Tragoxka

13:00etan, Epel-ISU Leihoak

SQUASH

Larunbata 13

15:00etatik aurrera

FINALA

Alberto Udabe-Agustin Erkizia

3. ETA 4. POSTUA

Kinin Calvo-Aitor Reyes

KONTSOLAZIOA

J.R. Urruzola-Iker Cañedo

PILOTA

Larunbata 13

UDABERRI TXAPELKETA

16:00etan, Intza 1-Aurrera-Saiaz 2, Michelinen.

16:00etan, Intza 3-Lizardi Igel-do, Urnietan.

16:00etan, Urnieta 1-Intza 2, Urnietan.

SANTA ANAKO PALA TXAPELKETA

Astelehena 15

18:30etan, Jon Pagola eta Jesus Ferreira-Pello Artetxe eta Jon Peio Artetxe

19:15etan, Axier Goikoetxea eta Aitor Azkonobieta-Juan Luis Yeregi eta Juantxo Prieto

20:00etan, Alain Etxebeste eta Iñaki Lizaso-Jose Felix Solano eta Mikel Arroyo

Asteartea 16

18:30etan, Xabier Garcia eta Eneko Urdanpilleta-Beñat Esnaola eta Xabier Arteaga

19:15etan, Agustin Zubizarreta eta Xabi Eugi-Jon Lizaso eta Txema

20:00etan, Iñigo Arluziaga eta Imanol Bardaji-Xabier Otaegi eta Patzu

Asteazkena 17

18:30etan, Carlos Garcia eta Beñat Garcia-Axier Iparragirre eta Iñaki Iparragirre

19:15etan, Manu Muñoz eta Imanol Muxika-Benito eta Joserra

20:00etan, Eneko Iradi eta Ibon Azkonobieta-Jon Begiristain eta Mikel Begiristain

Osteguna 18

18:30etan, Edu Jauregui eta Fran Ariztimuño-Axier Munduate eta Jon Aristizabal

19:15etan, Bernaitz Odriozola eta Shanti Martin-Patxo Castro eta Iñaki Castro

20:00etan, Xabier Etxezarreta eta Mikel Bardaji-Alvaro Reyes eta Roberto Felipe

ATLETISMO

Larunbata 13

Egun osoa, LOKEko atletak 2. Txallengean parte hartuko dute, Tolosa eta Errenterian.

Igandea 14

Goiz osoa, Landaberriko gazte-txoak infantil mailako Gipuzkoako proba konbinatu txapelketan Eneko Castro 10.urteurrena, Kirol guneko atletismo pistan.

JUDO

Larunbata 13

Asteburu osoa, LOKEko judo-ka gazteak 15 eta 17 urte azpiko San Fermin lehiaketan parte hartuko dute, Iruñean.

Kiroletako oharrak

Udako ordutegia

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuko kirol guneeek udako ordutegia izango dute uztailetik aurrera.

Honela, kiroldegia astean zehar, goizez 7:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 22:00etara egongo da irekia, baina igerilekua eguerdian 12:30etan itxiko da eta gauean 21:30etan.

Kirol gunearen ordutegia, astean zehar 10:00etatik 12:30etara eta 17:00etatik 21:00etara.

Larunbatetan kirol instalakuntzak 9:00etatik 13:00etara egongo dira irekiak.

Squasheko finala bihar

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuko antolatutako XXI. Squash txapelketa sozialeko finalak bihar jokatu dira kiroldegian.

15:00etatik aurrera, kontsolazio finala, 3. eta 4. postuak eta final handia egongo dira lehian.

Kontsolazio finalean Jose Ramon Urruzola eta Iker Cañedo egongo dira buruz buru; 3. eta 4. postuaren lehian, Kinin Calvo eta Aitor Reyesen arteko norgehiagoka egongo da eta final handian, Alberto Udabe eta Agustin Erkizia txapela lortzeko ahalgin guztiak egingo dituzte. •



Irudian, saria eraman duten parte hartzaile guztiak Xabier irakaslearekin.

Arg.: Xabier Gonzalez.

Landaberriko tenistak Gipuzkoako txapeldun

Landaberri ikastolako gazte-txoak Gipuzkoako Taldeko Tenis Txapelketa lehiatu dira ikasturtean zehar.

3 maila ezberdinetako, alebin, infantil eta kadeteetako zazpi taldek parte hartu dute txapelketan eta emaitza onak eskuratu dituzte Xabier Gonzalezen neska-mutilek.

Bi egoitza ezberdinetan, alebin mailako partidak, Donostiako tenis kirol elkartean (RCTSS) jolastu dira eta,

infantil eta kadete mailako partidak, Intxaurrendoko Mons polikiroldegiko tenis zelaietan jokatu dira.

Finalak

Lehiaketako finalak lehengo asteburuan jokatu ziren eta Xabier Gonzalezen hiru taldek txapela eskuratu zuten eta beste batek brontzezko domina.

Alebin mutileko Landaberri A taldea, Ander Huegun,

Julen Legarra, Beñat Urruzola osatua; alebin nesken Paula Uli, Maialen Ormazabal eta Izar Agirretxe taldea eta kadete nesken Landaberri A taldeak, Jaione Guerra eta Janire Tovarrek, eskuratu dute txapelketa.

Bestalde, hirugarren postua lortu zuen taldea, infantil neskena izan zen (Andrea Gonzalez, Sara Sanchez, Andrea Vazquez eta Itziar Mujika). •

Landaberriko atleta alebinak Gipuzkoako txapeldun orde



Arg.: Edu Galardi

Landaberri ikastolako atletismoko neska taldea igandean Gipuzkoako ikastetxeen arteko txapelketan bigarren postua eskuratu zuen, beste zortzi ikastolekin lehiatu ostean.

Taldekideak Saioa Olasagasti, Medea Cuellar, Aroa Lopez, Maria Eugi, Ane Galardi eta Patricia Prieto izan ziren eta Amaia Andres entrenatzaileak azaldu zigu-

nez, merezitako postua izan zen eskuratutakoa.

Talde lan izugarria

“Taldea guztiaren lana izan zen laudagarria. Denek egin zuten lan 2. postua lortzeko. Azken proban, erreleboetan kopa lehian zegoela ere, indar handia erakutsi zuten,” gaineratu du Amaia Andresek.

Irakurketa oso positiboa egin digu entrenatzaileak.

“Lasterketa eta proba batzuk irabazi ziren eta maila handia erakutsi zuten neskek. Helburua bete genuen eta, gainera, giro ona egon zen taldean,” adierazi zuten.

“Bi urte daramatzagu lanean talde honekin eta bagenekien lan ona egingo zutela. Etorkizunean ere, fin ibiliko dira lanean jarraituz gero,” aipatu zuten Landaberriko entrenatzaileak. •

Egunero

Erakusketa

MARIAN IBARGOEN herritarren margoak ikusgai. Lasarte-Oriako Bizilagunen elkarteko pintura eskolako ikaslea da Marian. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan



Ostirala, 12

Antzerkia

ETA KARMELE? antzezlanaren Iraia Elias eta Ainhoa Alberdiren eskutik. Jalgin, 22:30ean, EUSKARAZ

Trailera arte atzeratua!

Ostirala, 12

Kontzertua

LATITUD 43º N Donostiako pop-rock lehiaketako finalisten kontzertua. Sarrerik gabe. Abend kafe-antzokian, 00:00etatik aurrera.

Antzerki astearen azken txanpa

LANDABERRIKO ANTZERKI ESKOLAKO VII. ANTZERKI ASTEAREN barruan 6. mailakoek *Liburu Magikoa* antzeztuko dute eta ondoren gazteek *Grease* antzeztuko dute.

GAUR OSTIRALA KULTURETXEAN
LIBURU MAGIKOA 19:00ETAN
GREASE 22:30EAN
EUSKARAZ

Ostirala, 12

Magia ikuskizuna

RAFAFA MAGOAREN magia ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da. Obelix tabernan, 20:00etan.



Kontzertua

GRASSMAN ETA NAKEN SELEKTOR (reggae, soul, funk, ska, roks-tead,...), Lasarte-Oriako DJs emanaldia, Donostiako Herria tabernan, doan, 23:30ean.



Asteartea, 16

Hitzaldia

BESOKO UMEENTZAT ETA HAURRENTZAT MUGIMENDUAK DUEN GARRANTZIA hitzaldia eskainiko du Pilar Seminariok, Nola hezi gure sema-alabak hitzaldi zikloaren barruan. Kulturetxean, 18:00etan.

Oharrak

Enkarterrietara irteera

Maria Auxiliadoraren taldeak antolatuta ekainaren 21ean Enkarterrietara irteera bat antolatu da. Goizean Karrantza eta Pozalaguako kobazuloak bisitatuko dira eta arratsaldean Balmasedako herria. Izena emateko deitu telefono hauekaren batera: 943 363675 (Chelo) eta 943 360042 (Ixabel)

Elikagaien manipulatuak ikastaroak

Elkolabek elikagaien manipulatuak bi ikastaro antolatuko ditu Osasun zentro berriko eraikuntzako bigarren sailaruko balio anitzeko gelan, Kontsumoko sailaren laguntzarekin. Batetik arrisku gutxi ikastaroa izango da, hau da, minoristei eta elikadura dendei zuzendutakoa, ekainaren 16an burutuko da 14:00etatik 17:00etara; eta bestetik, arrisku handikoa, ostalaritzako sektoreari zuzendua, ekainaren 17 eta 18an 16:00etatik 19:00etara. Izena eman edo informazio gehigarriko, 943 533 303 harremanetarako zenbakira deitu.

Marrakzi eta pintura ikasturte bukaera

Lasarte-Oria bizilagunen elkarteko Marrakzi eta pintura ikastaroa ekainaren 20ean bukatzen dela jakin arazten da.

Danborrada entseguak

San Pedro jaiak hilaren bukaeran direla eta, danborrada entseguak hasi dira. Astelehena eta asteazkenetan izango dira Sasoetako ikastetxeetako gimnasioan, 18:30etan haurren txanda izango da eta 20:00etatik aurrera helduena. Garaiz iristea eta entseguetara joatea erregutzen da. Entsegu kopurua kontuan izango da. Honetaz gain, ekainaren 24ean helduek ez dute entsegurik izango eta Blas de Lezoko lokalera joan beharko dute 19:00etatik 20:00etara jantziaren bila.

Zabaleta Auzolaneko zozketa

Zabaleta Auzolanek Goiegi jaietxean zozketatzen zuen 4 pertsonentzako bazkaria edo azeria 68065 zenbakia irabaztu zuen. Zenbakia duen pertsonak auzoko batzordeko kideekin harremanetan jarritza besterik ez du.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturtxea • Geltoki 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Datorren asteazkenean, hilaren 17an, programa berezia!

Ospatuko den Euskal Astearen inguruan hainbat herritarrekin hitz egingo dute (bertsolariak, kulturako dinamizatzaileak...)

Eskutitzak

Zergatik saldu dagoena, zergatik bota behar ez dena

Egun gutxi barru, edo gaur bertan, ekainaren 11a, Okendoko frontoia, itxita egongo da, mugatuta, edo besterik gabe, ez da egongo. Azken urte hauetan askotan esan digute bota behar dutela, baina egun ez zenez iristen, bazirudien sekula ez zela gertatuko.

Orain dela hiru urte, Santa Ana egunean, parodiako antolatzaileek, Santa Ana Pala Txapelketari omenaldia egin zioten. Uztailaren 26ko gau hartan, Okendoko plazan bildu zen jendearen aurrean, plaka bat jaso genuen eta lau

hitz esan genituen. Hitz horiek asko neurtu genituen, inor ez mintzeko, ez udaletxea, ez gure aurrean bildu zen jendetza. Gau hartan gure arrazoiak eman genituen, bota behar duten frontoia zergatik ez den bota behar adierazteko. Euskal Herriko herri gehienek hiru gauza dituzte, udaletxea, parean eliza, eta ondoan herriko frontoia. Baina Lasarte ezberdina da, ez hobeagoa ez txarragoa baina bai ezberdina. Gaur egun, EGUNERO, hoguei bat gazte biltzen dira frontoia-aren parean, euriak uzten badie, esku pilotan, palan, edo baloiarekin aritzeko, beraien gauzetaz hitz egiteko edo zer egin behar duten erabakitzeko. Baina herri erdian biltzen dira, kirola egiten dute eta ez dira leku batetik bestera joa-

ten, badakite non aurkitu lagunen bat edo ezagunen bat izerdi pixka bat botatzeko.

Badakigu urtea bukatu baino lehen, frontoi berria martxan jarria edo bukatzeko egongo dela, baina ez da berdina izango, frontoi berriak ez du inoiz izango Okendoko frontoia duen garrantzia.

Azken finean, jendeak egoera ezagutu dezan idatzi ditut lerro hauek, ezin baitutugu lanak geldiarazi, eta gainera hori ez zen gure helburua. Gure helburua Santa Ana Pala Txapelketa Okendon jolastea zen. Orain bi aukera ditugu: Oriako frontoira joan, eta bakar bakarrik jolastu, oso jende gutxi hurbiltzen baita, edo Michelingo kanpoko fron-

toian jolastea.

Azkenekoa Michelingo frontoira joan beharko dugu, zeharo ezberdina den frontoi batetara. Urrun dago eta bertan ez dugu sekula jolastu. Inoiz baino gehiago behar dugu jendearen laguntza, jendearen beroa eta zarata. Jendea baita gure txapelketa ezberdintzen duen elementua.

Ez nahiz gehiago zabalduko, inor ez aspertzeko. Espe- ro dut gure haserrea ulertzea eta bakoitzak ahal duen neurrian laguntzea. Aldez aurretik, eskerrik asko.

**Alain Etxebeste
Santa Ana Pala
Txapelketaren arduraduna**

Alkoholiko Anonimoak, atea zabalik

■ Gizarteari begira jarri da elkarte 75 urte betetzear dituenen. ■ 74. urteurren ospakizunean, "Azken atea" dokumentala eta "eskailera" diaporama aurkeztu zituzten. ■ 2010ean ospakizun berezia egin nahi dute.

Alkoholiko Anonimoak AA elkartearen biltzen diren lagunek ez dute euren burua publiko egiten, ez dira herrian ezagunak, baina elkarteak atea zabaldu ditu eta alkoholarekin arazoak dituztenen eguneroko errealitatea eta arazoa gardentasunez erakusteko asmoa azaldu dute elkartearen 74. urteurrenean. Asteartean Lasarte-Oriako AA taldekoak topaketa antolatuta zuten kultur-etxean.

JON ALTUNA

Alkoholiko Anonimoak elkarteak 74 urte bete ditu eta urteurrenaren ospakizunean, aurreko astearte arratsaldean Kultur Etxean, alkoholarekin arazoak izan eta elkarte honen babesa jaso dutenak, hauen senideak eta arazoarekin interesaturik zeuden zenbait herritar elkartzu ziren zenbait politikari eta ordezkari publikorekin batera.

Ekitaldian izan ziren Osakidetza, Jaurilaritzako eta Udaltzeko ordezkariak, edateari utzi dioten zenbait herritarren testimonioak entzun zituzten eta bi aurkezpen ikusi. Batetik "eskailera" izeneko diaporama, pertsona batek edaten hasten denetik, alkohol kontsumoaren eraginez hiltzen den arte eraman dezakeen muturreko ibilbidea jorratzen duen lana eta ondoren "Azken Atea" Donostiako Larrotxene Kultur Etxeko dokumentalaren tailerreko kide diren Xabi Vicente, Javier Herrero, Mikel Insausti eta loane Galarzak egindako filma laburra. Dokumentalean AA elkartearen zenbait kideren testigantzak, Alvaro Iruin medikuaren hitzak eta administrazioko ordezkari batzuen iritzia, tartean Lourdes Acevedo Lasarte-Oriako zinegotziarena, ikusi ziren.

Acevedok berak ere parte hartu zuen astearteko ekitaldian eta zinegotzi bezala darabatzan zazpi urte hauetan

egindako lan guztien artean, bere iritziz, lorpenik handiena AA elkartearen Lasarte-Oriako taldeari Villa Mirentxun Ongintzak erabiltzen dituen lokaletako bat uztea izan dela esan zuen. Konfiantza handia omen du taldean. Udala eta elkarteak elkarrekin lanean segitzeko asmoa dutela plaza-ratu zuen.

Politikarien hitzak

Ekitaldian izan zen Celina Pereda, Jaurilaritzako drogomepokotasunen arloko zuzendari berria ere. Aurreko astean izendatu zutela eta parte hartzeko gonbidapena bi aldiz pentsatu gabe onartu zuela esan zuen, "batez ere ikastera nator". Bere kezka azaldu zuen gazteen artean, alkoholak edo beste drogek daukaten zabalkundearengatik eta egingo duten drogomepokotasunen plangintza berrirako guztien laguntza eskatu zuen.

Javier Herranz Osakidetza zuzendaritzan diharduen medikuak gonbidapena eskertu, 74 urte bete dituen elkartearen zoriandu eta Osakidetza izenean esan zuen laguntzeko prest dauden guztientzat atea zabalik dituztela. Zenbait hausnarketa planteatu zituen: Alkoholismoa arazo handia dela, sendietan eragin handia duena; Kulturalki onartua batez ere aisialdi eta denbora pasa unetan, alkoholik gabeko jairik ez dela hemen; gehiegi edatea ez dela serio hartzen, mozkorrak



Azken atea dokumentalean ez dira hitz egiten dutenen aurpegiak ikusten. Hori da Elkartearen ezaugarrietako bat.

grazia eragiten du; medikuen lana eta tratamendua erraza dela eta horregatik goraiatu zuen AAren lan garrantzitsua eta medikuekin elkarlana. Hauen lana laguntzea da, eta elkartekoei lagundu egin nahi dute, beraz bere iritziz erraza da ondo konpontzea.

Osakidetza buru gisa esan zuen esperientzia interesgarria dela medikuak eta AA taldeak hartu-emanetan jarri eta elkar ezagutzea eta bide horretatik segituko dutela.

AAko ordezkariak adierazi zuten datorren urtean 1935ean AEBko Akron hirian bi lagunek sortu zutenetik 75 urte betetzen direla eta ahalegin berezia egingo dutela "gizarteari zabal zabalik dagoen errealitatea" leloa egi bihurtu dadin, eta gizartean AAko taldeei lan egiten utzi diezaioten.

Ekitaldiaren bukaeran ere izan ziren edateari utzi duten herritarren testimonioak. Batek

jakinarazi zuen Lasarte-Oriaren prebentzio kontseiluan lanean ari direla, Eskola eta Kirol mailatan eta hitzaldiak antolatuz eta taldeak jarraitu dezala 75 urte eta gehiago.

Azken atea

"Azken atea" dokumentalean 1962ko "Ardo eta arrosen egunak" edo "Days of wine and roses" Jack Lemmon buruan duen filmeko irudiak eta hainbat testimonio tartekatzen dira. Alkoholaren eragin kaltegarriak aipatu ziren, fisikoak, mentalak eta mingarriak emozionalak.

Filmean ikusten zenez, arazoa ukatu egiten da erabat harrapatu arte, pixkanaka okerre eragiten du gaixoak, baina ez du arazorik ikusten eta somatu arren, ez dio behar duen garrantzia ematen, behea jo arte. Alkoholak hartzea bakardadearekin lotzen dute, eskutik helduta doaz, testimo-

nio batean esan zenez: AAra deitu eta jada ez zaude bakarrik. Bestalde AAko kideen ustez, elkarte medikuntza eta zientzia iristen ez diren lekue-tara iristen da, beste batzuek ematen ez duten konponbidea ematen du.

Elkarteko kide batek jakinarazi zuen, 39 talde direla Gipuzkoan, eta arlo ezberdinetan ari direla lanean, esaterako Martuteneko kartzelan, lan munduan hasi dira murgiltzen, Udalbatza, Guraso elkarte, eritxe eta abarrekin lan egiten dute,...

Era berean biltzen jarraitzearen garrantzia nabarmendu zuten, antzera dabilzan beste batzuekin hartu-emanak izatea oso lagungarri dela alegia. Berritoki gupilean erortzeko arriskuaz ere mintzatu ziren, hainbat trago bat hartuz gero, jada berriro geratuko denik ezin dela ziurtatu azpimarratuz. •

MAPFRE FAMILIARRA

- Etxeen aseguruak
- Ibilgailuen aseguruak
- Osasunerako aseguruak eta mediku-aseguruak
- Pertsonen istripuetarako aseguruak
- Nekazal turismoko aseguruak
- Zaldi eta txakurrentzako aseguruak

Loyarte aseguruak S.L.

AUTONOMOENTZAKO POLIZA KONBINATUAK

MAPFRE ENPRESAK

- Enpresa aseguruak

CAJA MADRIDek
delegatutako bulegoa

MAPFRE BIZITZA

- Bizitza-aseguruak
- Erretiro eta aurrezki aseguruak
- Fondo Garantizatuak (erabateko segurtasuna)
- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitatea (EPSV-BGAE)

GELTOKI KALEA 8 BEHEA • LASARTE-ORIA • TEL.: 943 360268 • FAXA: 943 360546